



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO ABUZTUAREN 13KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.08.13.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

### **Zinegotziak:**

Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Margarita Vergara Vergara andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Juan M. Gonzalez Burguete jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Usaineko Borda-Burdingurutz alderdiko bidea moldatzeko obra.
- 5.-2017ko kontuak: behin betiko onespina.
- 6.-Ordezko Bake Epailearen kargua.
- 7.-2018ko bestak.
- 8.-2018ko aurrekontuaren aldaketak.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2018ko uztailaren 2an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, zuzenketa honekin:

2. puntuan- “Berdabio Basogintza S.L. enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 9.310,00 eurotan, BEZ kanpo, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz” dioen lekuan, “ Berdabio Basogintza S.L. enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 9.310,00 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz” erran behar du.

### **2.-MARGARITA VERGARA VERGARA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Margarita Vergara Vergara andreak aurkeztutako eskaera, Irullegi alderdian dagoen pinudiaren probetxamendua egiteko (matarrasa), 6. poligonoko 221. lurzatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Margarita Vergara Vergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

**Juan M. Gonzalez Burguete jauna ateri da bilera aretotik.**

### **3.-JUAN M. GONZALEZ BURGUETE JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Juan M. Gonzalez Burguete jaunak Mugarai alderdian dagoen pinadiaren probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 320. eta 321. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M.Gonzalez Burguete jaunak eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

- 4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

**Juan M. Gonzalez Burguete jauna itzuli da ateri da bilera aretora.**

#### **4.-USAINEKO BORDA-BURDINGURUTZ ALDERDIKO BIDEA MOLDATZEKO OBRA.**

Arantzako ehiza kotoa Usua Kirol Ehiztarien Elkarteari esleitua da eurek kudeatzeko.

Onartutako pleguaren arabera, Arantzako Udalak nahitaez inbertitu behar du ehiza barrutiaren ustiapenean eskuraturiko %25 bederen, barrutiaren animalien populazioak eta habitatak hobetzeko.

Arantzako Udalak eta Usua Elkarteari adostu zuten 2018. urtean Udalak inbertituko beharreko dirua Usaineko Borda-Burdinurutz alderdiko bidean hormigoia botatzen izanen zela.

Bidearen kostua hauxe izan da: 15.840,13 euro, BEZ barne.

Obraren finantziakzioa horrela izatea adostu zen:

-Udalak 2017. eta 2018. urteetan eskuraturiko %25a jartzea: 5.662,91 euro.

-Udalak gastuaren %20a jartzea, bertze bideen jarri duen bezala: 2.568,03 euro.

-Udalak aurretik egindako gastuak kitzatzea: 1.126,63 euro.

-Burdinurutz baserriko jabeak jarriko duen diru-laguntza kontuan hartzea: 3.000,00 euro.

-Ehiztariak gainera euren kargura izatea.

Ondorioz, Udalari 7.104,31 euroko gastua dagokio eta Usua Kirol Ehiztarien Elkarteari, 5.735,82 eurokoa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Usaineko Borda-Burdinurutz alderdiko bidea moldatzeko obraren gastua onartzea.

2) Usua Kirol Ehiztarien Elkarteari aipatutako kontuak igortzea eta 5.735,82 euro Udalari ordaintzeko eskatzea.

#### **5.-2017KO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Arantzako Udalak, 2018ko martxoaren 5ean egindako bileran, erabaki zuen 2017ko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunez jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2017ko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.

2) 2017ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.



## **6.-ORDEZKO BAKE EPAILEAREN KARGUA.**

Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkioak kargua utzi duenez, ordezeko epailea izendatu behar da.

Ikusirik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta herrian zehar argitaratutako iragarkien ondorioz bakarrik pertsona batek eman duela izena: Isabel Damboriena Damboriena andrea.

Aho batez, eta gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkioa Isabel Damboriena Damboriena andrea izendatzea.

2) Akordio hau interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzara bidaltzea.

## **7.-2018KO BESTAK.**

Ikusirik 2018ko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2018ko bestetako egitaraua onartzea.

## **8.-2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETAK.**

**8.1.-** Udal honek hainbat kale moldatzeko beharra ikusi du eta libre erabakitzeke partidarekin finantzatzeko asmoa dauka 2019. urtean: Karrika Nagusia, Goienburu Karrika eta Salbatore Karrika.

Espedientea hasteko proiektu eta memoria baloratuak egin ditu LUA ARKITEKTOAK S.L.P. enpresak.

Kontuan hartuz ez dela 2018ko aurrekontuan partidarik horietarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2018ko aurrekontuaren 3. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

**8.2.-** Udal honek emakumearen oroimen baratzea sortu du aurtengo udan.

Kontuan hartuz ez dela 2018ko aurrekontuan partidarik horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2018ko aurrekontuaren 4. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.



## **ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

2)Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

**8.3.-** Udal honek Usaineko Borda-Burdingurutz alderdiko bidea moldatzeko hitzarmena adostu du Usua ehiztari elkartearekin. Bidean hormigoia botako da; zati bat auzolanean egingen da. Udalak bere gain hartuko du kotoari kobratzen den 2017ko eta 2018ko %25 (udalak kotoan egindako gastuak kendu ondoren) eta bidea hormigoitzeko egindako gastuaren %20 eta gainekoa ehiztariak ordainduko dute, Burdingurutz baserriko jabearen diru-laguntza kendu ondoren.

Kontuan hartuz ez dela 2018ko aurrekontuan partidarik horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2018ko aurrekontuaren 5. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2)Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

### **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 79. ebazpenetik 107. ebazpena arte.

### **10.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

### **11.-ISIDRO ECHEVERRIA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Isidro Echeverria Alzuri jaunak Mugarai alderdian dauden pinuen probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 98. eta 99. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Isidro Echeverria Alzuri jaunak eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



- 4) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **12.- KORRIKA: 2019RAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Korrikak aurkeztutako idatzia, 2019. urtean 21. edizioa antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2019ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

## **13.-EUSKARALDIA UDAL BARRENEAN SUSTATZEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

Ikusirik UEMAtik igorritako adierazpen instituzionala, Euskaraldia ekimenarekin bat egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1)Udal honek bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izanen da. Horrenbertzez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- 2)Ordezkeri politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrenera begira ekimena zabaltzea. Horrenbertzez, ekimen honetan ahalik eta *Ahobizi* eta *Belarriprest* gehien aktibatzeke urratsak egingen ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.
- 3)*Ahobizi*ok euskara ulertzen duten guziekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- 4)*Belarriprest*ok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- 5)Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- 6)Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- 7)Udalak bat egiten du ekimena Euskal Herriko bertze hainbat eragilerekin, elkarlanean eta batera garatzearekin.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.

*Mentxu Peña*



*Mull*

